



elkartea@feuse.org  
www.feuse.org

# Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

## Batzorde zuzendaria berritzeko garaia

**G**ure Elkartearen estatu-tuen arabera, udazken honetan Batzorde Zuzendariaren berritze prozesuari ekin behar diogu, orain betetzen baitira hiru urte zuzendaritza taldea hautatua izan zenetik. Lerro hauen bidez, hiru urte hauetan buruturiko ekintza batzuk gogoraraziko dizkizugu.

Elkartearen IX. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna, Bizkaiko Farmazialarien Elkargoan egin genuen Bilbon, 2004ko martxoaren 28an. Egun hartan, Javier Saenz de Buruaga lankide jatorra omendu genuen. Sonia bere alabak aitari buruz hitzaldi hunkigarria eman zigun. Jarraian, aurreko urtean Elkarteak sorturiko Feuse saria Arrate Jauregi eta Itziar Fernandez de Larinoa lankide gazte arabarrei eman genien, ardoari buruzko lan batengatik. Lana argitaratu genuen eta kideoi bidali 2005eko otsailean. Era berean, Pello Iturriak kanabisari buruz idatzitako monografia argitaratu genuen eta kideoi bidali 2004ko otsailean. Bi lanek osatzen dute Jose Antonio Loidi bilduma, hirugarren eta laugarren zenbakiak, hain zuzen.

Era berean, Zuzendaritza-batzordeak Feuseren farmaburua sortu zuen 2004an. Helburua, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzea da eta, edozein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkartek eskuratu ahal du. Garaikurra Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da. Batzorde Zuzendaria bi urtean behin emango ditu bi sari horiek; hau da, urte batean, Feuse saria eta hurrengoa Feuseren farmaburua.

2004an, bada, EHUko Farmazia Fakultateak eskuratu zuen Feuseren farmaburua. Garaikurra Aurora Fernandez Astorga Farmazia Fakultateko dekanu andereari eman genion Granja Ntra. Sra. de Remelluri S.A.k Bastidan (Araba) dituen upeltegietan, 2005eko apirilaren 3an, Elkartearen X. Batzar Orokorra bukatu ondoren.



Webgunearen orrialde nagusia

Halaber, 2005eko II. Feuse saria Igor Horrillo Furundarena Mendaroko lankide gazteak irabazi zuen Depresio Nagusia lanarekin. Diploma eta 3.000 euroko saria Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak Donostian duen egoitzan eman genizkion, Elkartearen XI. Batzar Orokorra bukatu ondoren, joan den apirilaren 2an (liburuaren argitalpena prestatzen ari gara). Egun berean, elkartearen webgunea aurkeztu genuen eta, hurrengo egunean bistan ipini [www.feuse.org](http://www.feuse.org) helbidean, hain zuzen.

Farmaberri Elkartearen aldizkaria ere zintzo asko, lau hilabetetik isu hilabetera prestatu eta bidali dizugu. Gaur egun elkarteak 245 kide ditu (171 emakumezkoak eta 74 gizonezkoak) eta ekonomia onbidaturik.

Oraingo Batzorde Zuzendaria 2004ko urtarrilaren 29an eratu zen. Lankide hauek osatzen dugu: Pello Iturria (lehendakaria); Maritere Omaetxebarria (lehendakariordea); Unai Berasategi (idazkaria); Aitziber Etxebarria (diruzaina); Juan Carlos Aristorena, Sonia Saenz de Buruaga eta Maria Eugenia Sagardoy (batzordekideak). Zuzendaritza-batzordea berritzeko ordua iritsi da. Izan zaitezte gure ordezkioak. Aurrera!





# KAFEINA

## HAUR GOIZTIARREN

### APNEAREN TRATAMENDUAN

Gauza jakina da, kafeinak, metilxantina den aldetik, haur goiztiarretan apnearen maiztasuna eta aireztatze mekanikoaren beharra jeisten dituela, tratamenduaren lehen zazpi egunetan. Ikerketa, nazio ezberdinetako 2.006 haurrekin (pisu gutxiarekin jaio zirenak noski) egin zen, tratamendu honen ziurtasuna eta eragina aztertu nahirik epe motzean nahiz luzean. Orain arte terapia honen abantaila eta arriskuez ezer gutxi jarri da mahai gainean. Beraz, ikerketa honen helburua tratamendua epe luzean aztertzea zen, baina emaitzak behar bada garaizegi argitaratu dira, birika eta bronkio displasia tasak epe motzean behera egiten zuela ikusi zelako.

Apneatzat jotzen da goi-arnasbidean 20 segundu baino gehiago irauten duen aire fluxu gabezia, edo 20 segundu baino gutxiago izan arren maila kardiobaskularrean eraginik duenean, adibidez bradikardia, hipoxenia...

Erditzea, zenbat eta gehiago aurreratu, eta zenbat eta pisu gutxiago izan, haur goiztiarretan apnea orduan eta maizago gertatzen da; dirudenez, jaioberrian, arnas mekanismoak kontrolatzen dituen garuneko zatia heldu gabe dagoelako gertatzen da apnea.

Ikerketa honetan 500 eta 1.250 gramo bitarteko 2.006 haur aztertu ziren, bizitzako lehen hamar egunetan, apnea tratat-

zeko, tratamendu farmakologikorik behar izan ez zen arte.

Kafeinarekin tratatu zituzten %36ak, tratamenduaz gainera oxigenoa behar izan zuten, plazeboa eman zieten haurren artean berriz, %47ak behar izan zuten oxigenoa. Gainera, kafeinaz tratatu ziren haurrek, batz bestea beste baino aste bate gutxiagoz behar izan zuten aireztatze mekanikoa.

Kafeina eman zitzaizkien haurrei bronkio eta birika displasia tasa jeisten zitzaizkien, nahiz eta pisu gutxiago irabazi.

Displasia, amasketa insufizientzia ematen da, eta aireztatze mekanikoaren ondoren ere oxigenoarekin jarraitu behar izaten da; egoera asko larriagotzen da beraz, displasia izanez gero.

Heriotza tasa, garuneko kalteak eta nekrosia eragiten duen enterokolitisa berdinak izan ziren bi taldeetan.

Beraz, ikerlarien ondorioa ondorengo izan zen: kafeinak pisu gutxiago haur goiztiarretan, apnea maiztasuna eta aireztatze mekanikoaren beharra jeisteaz gain, epe motzean duen eragin oso positiboa, bronko-birika displasia probabilitatea jeistea da.

**Gizakien G1P (8) erako rotavirusaren txertoa aho-bidezko bi dositan eman zitzalzen haurrei, eta gastroenteritis larriaren aurrean, oso eraginkorra zela ikusi zen, eta gainera hesteen inbaginazio arriskua ez zen areagotu txertatu ondoren.**

Rotavirusak eragindako infekzioa, titiko haurren diarrea, bai eta heriotza ere, eragiten zuen lehen zergatia da. Beraz, rotavirusaren aurrean ziurra eta eraginkorra izango zen txertoa aurkitzea zen lehentasuna; batez ere lehen zegoen txertoa ("Rotashield" txerto tetra-balentea) merkatutik kanpo utzi zenean, izan ere txerto honek hesteen inbaginazioa eragin zezaketen, eta elikagailen joan-etorria eragotzi hestean zehar.

Ikerketa zentru desberdinetan egin zen eta 3 alditakoa izan zen. Bigarren aldiari, eraginkortasuna %90-100 bitartekoa zela ikusi zen. Gastroenteritis larria honela definitzen da: Ospitaleratzea eta berhidratatze terapia behar duten diarrea prozesuak (goranearekin edo gabe). Gastroenteritisaren larritasuna finkatzeko "Vesikari" ren eskala eman zen, 20 puntuko eskala da eta zenbat eta puntu gehiago orduan eta larriagoa da eritasuna.

Lehen helburua hesteen inbaginaziorik ez gertatzea zen txertatu ondorengo 31 egunetan, eta beste aurkako eraginik ere ez izatea. Balorazioa egiteko irizpidea, bigarren dosia hartu eta bi astetatik urte bat bete bitartean zuen eraginkortasuna handia izatea izan zen.

Ikerketa Hego Amerika eta Finlandiako 63.225 titiko haurrekin egin zen, erdiak aho bidez Anti RVH txertoa hartu zuten bi dositan eta beste erdiek plazebo. Gero, 20.000 haurreko azpitalde bat aztertu zen, erdiak txertatuak eta besteak ez.

Rotavirusak eragindako gastroenteritis larriaren eta ospitaleratzearen aurrean, %85eko eraginkortasuna izan zuen



Titiko haur osasuntsuekin egin zen ikerketa

## Rotavirusak eragindako gastroenteritisaren aurkako txertoa

eta rotavirusak eragindako gastroenteritis era larriaren aurrean berriz %100ekoa. Beste edozein arrazoik eragindako diarrea dela eta, ospitaleratzeak %42an jeitsi ziren. Txertatu eta hurrengo 31 egunetan txertatutako 6 haurrek izan zuten hesteetako inbagi-

nazioa eta beste taldeko zazpik.

Beraz, bi taldeak konparatuz, ondorio hau atera zen: ziurtasuna alde batetik eta eraginkortasun esanguratsua dituela G1P (8)erako birus biziaren aurkako anti RVH txertoa.



## Cinfa bisitatzeko gonbidapena

Cinfa laborategiak oraingoan gonbidapen bikaina egin digu Feuseko kideei. Datoren urtarrilaren 18an (osteguna), arratsaldeko ordu bietan, laborategian bertan dugu hitzordua enpresako lagunekin. Cinfa Uharten (Nafarroa) dago, Areta industrialdean.

Hasteko, mokadu goxo egingo dugu; gero, kafea hartu ondoren, hirurak aldera, laborategia erakutsiko digute. Bisitaldia lau eta erdiak aldera bukatuko da.

Laboratorios Cinfa, S.A. medikamentu generikoetan, OTC produktuetan eta ortopedian aitzindari da. Oso azaguna mediku eta farmazialarien artean, profesional sanitarioek uste osoa dute laborategian.



### FFIISFren eskutik

## II. Farmaburua saria

Eikarteko Zuzendaritza-batzordeak Feuseren farmaburua sortu zuen 2004an. Helburua, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzea da eta, edozein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkarteek eskuratu ahal du. Garaikurra Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da. Elkarteak bi urteen behin eman nahi du Feuseren farmaburua. Lehen Feuseren farmaburua EHUko Farmazia Fakultateak eskuratu zuen 2004an, azken urte hauetan, fakultatean bertan, euskararen erabilera normalizatzearan aide emandako zurrerapausoengatik.

Aurten, bada, lehen hauen bidez, Feuseren farmaburuaren bigarren deial-

dia egiten dugu. Hauexek dira sariaren ezaugarriak:

### Deialdia

Feuseko kide guztiok hautagairen bat (gizabanako, talde, erakunde edo elkarte) proposatu ahal dugu, haren mezimenduak azalduz. Proposamenak aurkezteko epea, 2006ko abenduaren 31an bukatzen da.

(Irabazleari zuzenean esango zaio hautatua izan dela eta 2007ko Feuseren Batzar Orokorren egunean emango zaio garaikurra.

### Epaimahala

Feuseko Batzorde Zuzendari kideek osatzen dute epaimahala eta 2007ko Batzar Orokorren eguna baino le-

hen erabakiko dute nor den irabazlea. Epaimahaiaren erabakia apelazina da.

Epaimahiak erabakiko du aurreikusitako gabeko gutia.

### Proposamen-hidaltzetak

Proposamenak e-mailen bidez bidali ahal dira:

[elkartea@feuse.org](mailto:elkartea@feuse.org)

Postaz ere helbide honetara:

Pello Iturria, Farmazia,  
Estafeta, 87  
31001 Iruñea

Nahi bada, telefonoz ere bai:

948 220680 (Pello Iturria).